BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6351

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 14koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Honen bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko uztailaren 6ko Agindua aplikatuz, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak behar bezala eskolatzeko irisgarritasun-obrak egiteko itunpeko ikastetxeei emandako diru-laguntzen berri ematen da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko uztailaren 6ko Aginduaren bitartez, irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeari jarraituz, laguntzetarako deia egin zitzaien itunpeko ikastetxeei hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak behar bezala eskolatzeko irisgarritasun-obrak egiteko.

Honako hauek aztertu ditugu: aurkeztutako eskabideak, ebaluazio-txostenak, 2011ko uztailaren 6ko Aginduaren hamargarren artikuluan jasotako esleipen-irizpideak eta agindu bereko bederatzigarren artikuluari jarraituz eratu den balorazio-batzordeak bidalitako ebazpen-proposamena. Hori guztia kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza-premia bereziak behar bezala eskolatzeko irisgarritasun-obrak egiteko inbertsio-gastuak finantzatzeko laguntzak ematea ebazpen honen I. eranskinean aipatzen diren itunpeko ikastetxeei; eranskin horretan azaltzen da zenbat diru ematen zaien itunpeko ikastetxe horiei.

Bigarrena.– 2011ko uztailaren 6ko Aginduaren 15. artikuluarekin bat etorriz esleitutako diru-kopurua jasoko dute ikastetxe onuradunek.

Hirugarrena.– II. eranskinean zerrendatzen diren ikastetxeei ukatu egiten zaie diru-laguntza. Izan ere, ez dituzte 2011ko uztailaren 6ko Aginduan jasotako deialdi-baldintzak betetzen.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta beraren kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik kontatzen hasita, 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 14a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.

I. ERANSKINA

Zenbakia	Ikastetxea	Herria	Lurraldea	Dirulaguntzaren zenbatekoa (Euro)
1	CPES Jesús Obrero BHIP	Vitoria-Gasteiz	Araba	60.452,04 €
2	CPEIPS Salesianos Deusto-M. Aux.-SA HLBHIP	Bilbao	Bizkaia	39.635,52 €
3	CPES Otxarkoaga BHIP	Bilbao	Bizkaia	49.075,85 €
4	CPEIPS Trueba de Artxanda HLBHIP	Bilbao	Bizkaia	27.740,19 €
5	CPES Almi BHIP	Bilbao	Bizkaia	13.212,52 €
6	CPEIPS Ángeles Custodios HLBHIP	Bilbao	Bizkaia	5.006,25 €
7	CPES Zabalburu BHIP	Bilbao	Bizkaia	14.013,78 €
8	CPEIPS Begoñazpi Ikastola HLBHIP	Bilbao	Bizkaia	51.921,83 €
9	CPEIP San Juan Bautista HLHIP	Muskiz	Bizkaia	48.211,90 €
10	CPEIPS Asti-Leku Ikastola HLBHIP	Portugalete	Bizkaia	16.860,91 €
11	CPEIPS San José de Calasanz HLBHIP	Santurtzi	Bizkaia	34.748,52 €
12	CPEIPS La Salle-San José HLBHIP	Beasain	Gipuzkoa	8.696,00 €
13	CPES Academis Beta SL BHIP	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa	24.016,87 €
14	CPEIPS Axular Lizeoa HLBHIP	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa	27.225,54 €
15	CPEIPS St. Tomás Lizeoa HLBHIP	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa	36.504,91 €
16	CPEIPS Orereta HLBHIP	Errenteria	Gipuzkoa	42.677,37 €

II. ERANSKINA

Zenbakia	Ikastetxea	Herria	Lurraldea	Ukatzeko arrazoia
1	CPEIPS Aranzadi HLBHIP	Bergara	Gipuzkoa	Eskaerak ez du betetzen 2011-07-06ko Aginduaren 6. art.
2	CPEIPS San Fidel Ikastola HLBHIP	Gernika-Lumo	Bizkaia	Eskaerak ez du betetzen 2011-07-06ko Aginduaren 6. art.